



Ipar Euskal Herriko egoera politikoa abiapuntu izanik ere, euskararen kapital soziala eta bere ingurumena jorratu nahi ditu ekarpen honek, etorkizun hurbileko erronkei begietara so. Euskalgintza autoritate egitera deitua da bere osotasunean, euskararen biziberritzea gizarteratu nahi badu, eta euskararen normalizazioa legitimatu. Hala ere, euskaraz izatea ezin delako beti justifikatu, kontrabandoko jarrera eta zirkuluak funtsezkoak izanen dira, euskaldunon komunitatea munduan sustraitzeko eta loratzeko, minorizaziotik eta kulturatik bere ekarpena eginez ere bidean.

Giltza-hitzak: Euskalgintza. Autoritatea. Kontrabandoa. Zirkulua. Etika. Herria.

Euskararen etorkizunaz amesten ari gara Iparralde deitu periferian ere bai. Ez baldin badut soilik ikuspegi horretatik jardun nahi hemen, paradaz baliatu nahi dut lurralde horretako egoera aipatzeko.

Nonbaitik hasteko, digresio ttipi bat egingen dut kapital politikora: Euskal Elkargoa sortzen ari zela medio, Euskal Konfederazioak (Ipar Euskal Herriko euskalgintza soziala federatzen duen egiturak), liburu zuri batean finkatu zituen, 2016an, hizkuntza politikarako gomendio eta ardatz nagusiak. Ez 2040erako, 2020erako baizik: hots, gaurko, egoera urgentea izanik.

Liburu zuri horren lerro nagusiak laburbilduz:

- **Euskara ofiziala:** Korsikako eta Ipar Kataluniako ereduak hartuz, izaera ofiziala ematea euskarari Elkargoaren estatutuen bigarren artikuluan.
- **Hizkuntza politika berria:** NOTRe izeneko legeak bidea zabaldurik, hizkuntza politika partekatuaren beharra Elkargo berriak bere tokia eginez, baita, egoera gorantz tiratuz, orain arte presente diren aktoreekin batera (Frantziar estatua, Akitania eskualdea, Pirinio Atlantikoetako departamendua, eta Euskararen Erakunde Publikoa). Jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa, tokiko

hautetsiak zuzenean inplikarazteko, lankidetzan jartzeko euskara teknikari eta gizarte eragileekin batera, euskal hiztunen kopurua %30era hel dadin 2050ean.

- **Hizkuntza legearen beharra:** Hizkuntza politika berri hori juridikoki babesteko, eta egunero konfrontatu beharreko trabak gainditzeko.
- **Euskal Herri mailako loturak:** Euskal Herri mailako hizkuntza politikaren ingeniari-tza zutik ematearen garrantzia, erakunde publiko zein jendarte eragileen esperientzia desberdinen trukaketatik, koordinazioa eta diseinua bermatzeko.

Geroztik, Euskal Elkargoak Ipar Euskal Herria bere osotasun geografikoan zedarritu du lehen aldiz ofizialki, eta euskararen aldeko hizkuntza politikan bere lehen urratsak ere egin, bere lehen plangintza landuz, aurkeztuz eta bideratuz, baita euskarari ezagupen sinbolikoa emanez: ofizialtasuna deklaratzera jo gabe, borondatezko hitzarmen bat bozkatu da 2018ko ekainean, euskara eta gaskoierari hein bereko aitortza eginez lurraldean.

2040a gabe biziko dira instituzio berri horren ahalak eta mugak. Halaber, anartean, lehengo garaiek segitzen baitute: Seaskaren egoera ikustea besterik ez da. Hainbat irakasle-lanpostu ezin ihardetsiz dabil Frantziarekin engaiatu negoziaketa gogorretan, eta pilota tokiko hautetsiei pasatu die, ikastolen etorkizun hurbila horien eskuetan ere emanez. Hizkuntza politikaren aktore saihetsezina bilakatu da Seaska, 50 urteko biziraupenez euskarazko murgiltze-eredua eskainiz panorama publikoan, 4.000 ikasleen heinera helduz, baxoa bezalako diploma sakratuan emaitzak bermatuz; baita, nola ez, aktibitate politiko suharrez aitzinamenduak lortuz.

Alta, ondoko urteetan, ez da bakarrik Euskal Elkargoaren eragina neurtuko. Borondatea, muga eta legediaren arteko dantzak ez badu makabroa izan nahiko, sistema euskaltzale osoak autoritate egin beharko du, eta etorkizun hurbilak eskainiko dio hori ebaluatzeko parada. Ea sistemak eragiten duen, nolako konexioak dauden herrian eta gizarterantz, emaria jendera isurtzen ote den.

Ororen buru, autoritate-aferra horrek balio du euskararen etorkizunerako, bere osotasunean, eta uste dut hori izan dela e5 gogoetaren ekarpena. EAE-rentzat balio duenak balio du gainerateko lurraldeentzat ere, errealitate sozio-politiko-juridiko

eta ñabardura kultural propioak kontuan hartuz jakinez geroz, alabaina. Egitura batzuen mendeurrenean eta mugimendu zabal baten mende-erdiaren puntan, hauxe ez ote da galderarik sanoena: euskaldunon ekosistema nola doa?

Azken finean, euskararen erdian jendea baitago. Animalia linguistiko multzo horrek habitataren arabera jotzen du hizkuntza batera edo bertzera, ekosistemaren zalantzak eragiten baitio hautu eta portaeretan. Non eta ez duen jendeak berak ekosistema zalantzan jartzen: zer gogo, babes, aukera eskaintzen dizkio euskaraz egiteko, ala ezpainak ikaran geratzeko? Ekosistemari hor dagoka, baina aldi berean antolatze esku: norantza bikoitza da osagarritasunaren eta partaidetzaren seinale. Jendetik ekosistemara, ekosistematik jendera, eta fluxua badabil.

Hizkuntzaren erabileraren aroa zabaldu beharra dago, eta ahaldu kolektiboa eskatuko dio jendeari zein ekosistemari. Euskalgintza deitu sistema eragile horren erdian, Euskaraldia aplikazioak markatuko du lehen urrats masiboa, jendearen erabilera soziala bultzatuz: huts egiten ez bada bihurtzea (Euskaraldia kanpaina hutsa baino gehiago hartuz alegia), ariketa politiko erabakigarria bilaka daiteke, hizkuntza-ohitura berriak arau sozial bihurtuz ekosistemako egitura desberdinetan, baita, goazen mintza, gizarte zabalean.

Ahalduntze horri lagundu beharko zaio kultura soziolinguistikoz: jendea, guti izanik ere, ez da lege berrien zain egonen euskaraz funtzionatzeko indibidualki zein kolektiboki. Jakin nahi du nola egin lehen hitza zetaraino euskaraz atxikitze; nola egin batzarra euskaraz egiteko, erdaldunen partaidetzaz; nola egin euskaldunek euskaraz osoki josteko whatsapp eta txioak; nola egin haurra euskaraz loritzen laguntzeko; nola egin etorkinekin zubiak euskaratik eraikitze. Jendeak, bere heinean, autoritate egin nahi du: kalitatez, eta bidea zainduz. Formakuntza herrikoari zabaltzen zaio hor premiazko tokia.

Bai baina, ekosistemaren zaintzaileek jendeari ematen ote dizkiote galdera horien erantzunak? Ala beren tresnen garapenean daukate zibilborra? Kasu: ez dut batzuen eta bertzeen zilegitasuna zalantzan eman nahi, batez ere tresna batzuek egonkortasuna bermatua ez dutelarik. Jarrera eta ikuspegi ekosistemikoa, funtzio banaketa, kooperazioa... gure azpiegitura kapitalak bereganatzea zait garrantzitsua 2040rako bidean. Salbazioaren paradigma utzi eta biziberritzearena

adoptatu, engoitik euskara salbatua baitugu, eta batez ere horrek ez baititu asebetetzen kapital sozialaren behar berriak, hizkuntzaren gizarte-erabilpenari begira, proiektu politikoari begira, ez eta lege-babes berriak bozkarazteari begira. Abaila sortzailearen beharretan gaude.

1. Bidea zaintzeaz

Ekosistemaz ari gara berriz ere, eta ikuspegi horretan, funtsezkoa da beheetik gora doan ibilbidea: tokian tokikotik globalera, sustraituz bezala loratzea. Euskararen mundua, eraikuntzan den mundua dela, gure euskaltasuna bezala: ez perfektua, egunero bizitzeko ez erraza, baina abentura humano eta kolektibo interesgarriaren mentura eskaintzen duena.

Horretan zait garrantzitsua tokian tokikoa ez mespretxatzea, euskaraz bizitzeko eguneroko balioa eta zilegitasunaren iturri delako. Harremantzea, sarea osatzea, horretan jardutea eta konfiantza ehuntzea ingurumen hurbilean: ez da erraza, baina hats luzeko ariketa hori ongi ateratzen delarik, prefosta sustraitzen delarik, fruitu ederren uzta puntan. Uzta partekatua, eta berriz hasteko gogoa puntaren puntan.

Tokian tokiko istorio hori polizentrismoa izenda genezake e5 gogoetatik landa: funtsezko estrategia zait epe ertainean, bere lurraldean sustraitzeak ekar dezakeelako zubi-sare sendoagoa, batez ere norabidea argi izanez geroz. Ikastolen mugimendua ez zen Ipar Euskal Herrian garatuko Seaska gabe. Euskara elkarteena ere ez Nafarroan, bertako dinamika propioa antolatua gabe. Irudikatzen ote dugu euskararen biziberritzea aktore horiek gabe, gaur eta bihar?

Ez, baina funtzio banaketa eta ekosistema kooperatzailean kokatu beharrak daude, jendea euskaraz bizitzekotan 2040ean. Euskal jakobino estrategia hiper-zentralistak bere mugak erakutsiak ditu azken aldietan, eta Baionak ez du dagoeneko sinesten Donostiatik, Bilbotik zein Gasteiztik konponduko dela bertako egoera. Uniformizazioan erori izan gara maiz, diskurtso prefabrikatuetan, urruntasuna eta mesfidantza zirrikordatzen lurraldeen arteko zubi kakoletan, manifestako muntatu zalditeria ez ote zenez artifiziale pentsatuz buru-txoko batean doi-doi. Artifiziale, edo zerbait paternalista: euskararen salbatzera goazen Iparraldeko anaia ttipiarengana.

Bidea zaintzeak erran nahi du zubiak bi puntetatik ere sendotzea, baita bi aldiz gogoetatzea harremanen funtsaz eta

sanotasunaz. Behar bada noizbait ohartuko gara elkarrengandik ikas dezakegula, Ipar Euskal Herria ez dela betiko loser herresta euskararen batailan, eta Baionako dinamika edo gogoeta batzuek mereziko luketela Gasteizen zein Iruñean partekatzeak, itzulian ikus dezagun zerk funtzionatzen duen bi kapitaletan euskaraz bizitzeko. Eta bazkal dezagun elkarrekin. Barne-turismo soziolinguistiko doi batek ez liguke kalterik egingen.

Probokazioetan gaudeno, proba dezagun hedabideen ariketa: EITB harripean ehorzten ari garen garaian, pausa dezagun galdera Kanaldude bezalako komunikabideak zer lioken ekartzeko.

2. Eskolaren luzapenak

Eskolan eman zen euskara berreskuratzeko indarra duela mende erdia, eta eskolan bizi izan dira estrategia horren lehen mugak. Alta, eman dugu denbora aitortzen zerbait ez zola, murgiltzeak zuloa zaukala, euskara maitarazteko kanpainak oihartzun ahula zutela haur zein gazteengan, eta hain segur ere eskola deitua zela bere proiektua berrikustera, ordura arteko galdera pertinenteagoen inguruan: D ereduko haurrak elebidunak izanen ote baina, euskal hiztun oso, eroso eta aktiboak izanen ote? Edota galdera ekolinguistiko bixkia: zer nolako hizkuntza utziko diegu haurrei/zer nolako haurrak utziko dizkiogu hizkuntzari?

Eta, horretan, alabaina, nola antolatuko ote garen. Ea, mendebaldeko zibilizazio honi itsutuki jarraituz, eskolari utziko diogun hori konpontzen, ala ekosistema inplikatuago baten partaide bihurtuko dugun. Biharko euskal eskola deitua da ahozko-hizkuntza finkatzera, soziolinguistika irakastera, ahalduntzeaz eta identitateaz hausnarraraztera, euskal kuturaz jakitun eta gozatzaile izatera, auto-eraketan trebatzera, biharko euskaldunek ez badute beren bizitza armairuan uzkur iragan beharko, gure gisa gaur. Horrek guziak suposatuko ditu irakasleen formakuntzan ere berrikusketak eta berrikasketak.

Biharko euskalduna betetasunera heltzen lagundu bai, baina eskolari luzapen afektiboak eskainiz, familiarik hasiz. Gurasoek badute munduko irakasle bikainenak ere lortuko ez lukeen super-ahala: transmisioa eta afektibitatea lot dezakete dimentsiorik sakonenean. Eskola aldatu da, familia ari da bertsio desberdinez janzten azken hamarkadan. Baina haurrek

segitzen dute familiaren eremu berezi horretan mundua lehen aldiz deskubritzen hitzez eta urratsez, eta gurasoen sustengua beharko dute 2040ean ere euskaraz loratzeko, motibazioaren pegarra bere dimentsiorik sakonenera hel dadin. Etxerako lanak, udako lan-koadernoak dira gaurko burasoen kezka... Baina haurrekin jolastera, kantatzera, kontatzera, herri euskaldunenetara egun pasa edo oporrak igarotzera deituak izanen dira gaur-bihar batean. Ez delako hizkuntza soilik transmititzen etxean: pertzepzioa, jarrera, portaera, historia, irekidura, algara.

Luzapen afektiboarekin batera, eskolari eskaini luzapen sozio-kulturalak (eta politikoak?) herritik gizartera. Gure hizkuntzak eta euskaldunok perspektiba soziala har dezagun behingoz. Arrue ikerketak eman du legitimitatea: haur eta gatzetxoek euskara berenbaitatik eroso erabiltzeko, urratsak egin beharrak daude aisialdia bezalako eremu ez eskolarretan.

3. Aisialdia eta kultura

2040erako bidean, hainbat gauza adostu beharko ditugu eskolatik haratagoko eremuetan. Hor ere, galdera pertinateena ez zait zein aisialdi-motak duen gehien eragiten haur eta gazteen erabileran. Gehiago funtzio-banaketa eta osagarritasunera joko nuke: haur eta gazteen hizkuntza-erabileran, zein den udalekuen ekarpena, zein den asteroko futbol-entrenamenduen eragina, hain saihetsezina bilakatu den interneten txertatuko genukeen euskara-birusak nola kontamina dezakeen. Erabileraren GPS-ak bidea marraztua du.

Adostu beharreko gauzetan beti, aisialdia eta kultura desberdinu beharko ditugu. Alde batetik, ikuspegi soziolinguistikotik ez dutelako ekarpen berdina; baina, hor ere, osagarritasuna da galdezketatzen. Aisialdian, euskara erabiltzeko egoera berriak eta informalak eskaintzen dira haur eta gazteei, gozamina ardatz dutela, erreferente edo solaskide berriak eskainiz, horiek haur edo heldu izan. Kulturaren, berriz, hiztegi, forma eta doinu berriak, hizkuntzarekin jolasteko moldeak dira gehiago jokoan: hizkuntzaren aberastasuna eta aztarna gureganatzea eta plazan jartzea. Aisialdiak, gehiago arrunta eta normaltasunera tiratzen du; kulturak, gehiago berezitasun eta unibertsaltasunera.

Halaber, kulturaren bertze hura ere baitago jokoan: esplikatzen ez den sentimentua, batzuetan nortasuna, euskaltasuna, edo

herria ere deitzen duguna. Hizkuntzak zeharkatzen eta garraiatzen duen hura, baina hizkuntzaren inguruko hutsune bete hura agerian jartzen duena. Bertsoa bota aitzineko isiltasuna, zamaltzainaren urratsen itzaleko metafora, zirtzilaren gorputz ezazola, trikitilariaren erromeria, plazako zirkuluak, muslarien keinu eta begiradak... ez dira eskolan ikasten, ez dira kontsumitzen: herrian bizitzen eta gorpuzten dira, beren osotasunean aboraduz behintzat.

Eskola ofizial eta aratuak haurren konpetentziak ditu ardatz nagusi, ez du denetarako ahal eta denborarik, beraz kulturaren sasi-eskola horri ere kasu egin beharko zaio, haurren nortasun indibidual eta kolektiboa eraikitzen laguntzeko. Mendebaldeko zibilizazio honek dena diluitzen baitu, balio eta erreperioak barne, eta, aitor dezagun, doi bat galdurik gabiltzala hor igerian: nehor handi batzuk izan nahi ez badugu, kultura bere dimentsio osoan, politikoa barne, landu beharko dugu nonbait, noizbait, alegia deusez, hizkuntzari lotuz alabaina.

Kultura funtsezkoa ere delako munduko bertze populuekin trukatzeko: jakinez geroz, ez ote gara kantuz eta dantzan hasten trukean, ketxua zein kurduekin? Baina noiz pausatzen diogu elkarri galdera, zergatik dantzatzen dugun ote? Zergatik kantu horiek segitzen duten bizitzen gure baitan, gure herrian? Dena ezin da esplikatuz, arrazoitu, baina transmisio eta truke horiek izanen dute beren garrantzia, gure hizkuntzek eta komunitateek oihartzuna izan dezaten munduan. Madonna ez da beti etorriko gure bila. Mendebaldeko zibilizazio honetan, aisialdia eta kulturaren arteko muga geroz eta lausoagoa agertzen da, eta ez da kasualitatea. Kultura aisialdi bilakarazteak badu norbaitentzat abantaila: guretzat dela ez dut uste, ordea.

4. Kontrabandoko zirkuluak

Zirtzilkerietan hasi gara ja, kontrabandoaren jarrera erabakigarria izanen delako gure etorkizunean. Izan da garai bat non dena, gure gutasuna barne, behar genuen justifikatu, azaldu, edo, beti urrunago joanez, itzuli. Itzulpen kaskoak sarrarazi ziren bertso saioetan, saiatu ginen bertsolari hitzari erdarazko itzulpen trinkoak aurkitzen. Baina ohartu ginen beharrik, euskara gabe ezin zela euskal kultura bere osotasunean sesitu, barneratu, eta norbereganatu.

Bertsolari, ikastola, herria, euskaldun... bezalako kontzeptuak ezin dira hitz bakarrean itzuli, eta Aitor, Amets, Hegoa edo

Elaiaren ekibalenterik ez dago frantsesez, gazteleraz edo ingelesez. Horrekin, ez dut purutasun edo garbitasunik aldarrikatu nahi, baizik eta gure hizkuntza zein kulturaren berezitasun eta aberastasuna. 2040erako bidea zaindu nahi badugu, kulturak funtsezko tokia izanen du gure ahalduntze kolektiboan, barne mundutik ere edan dezagun. Gu izateko astia hartuz, herria biziberrituz eta sortuz.

Eta lagunduko digu mundu globalizatua liseritzen ere bai, horretan ito edo gohainditu gabe, zergatik ez hura errefusatu, agian bi irri eginez pasatzean. Bordeleko unibertsitateko pareta batean tintatu omen zuten, frantsesez: “Gaskoierak ez du deusetako balio”. Egun zenbait berantago, azpian atera zen errefera: “Bai, izateko balio du”. Tira tantoa: horrelako jarrera, doinua, funtsezkoa da euskaraz izateko XXI. mendean.

e5 gogoetaren semantikara berriz itzultzeko, egiturak, aktiboak bai baina, dinamika herrikoiak funtsezkoak izatera deituak dira, garapen propioaz axola handirik ez dutela; zirkuluak eta asanbladak, gazteak eta emazteak kolektiboki pizten dituenak. Minorizaziotik badaukagula eta badakigula, norma hain normala ez zaigula, gure kantua mundura ekarri nahi dugula. Kapitalari kontrabandoz, konstelazioaren oihal beltzetik herri eginez.

Zirkuluan ikasi dugu dantzan, zirkuluan bertsotan, kantuz, mintzapraktikan... Zergatik ez genuke soziolinguistikan hala ikasiko? Hizkuntzaren taupada ez dugu super-profesional edo mundu akademikoaren esku soilik uzten ahal: hori ez da gure auzia. Herriak eta hizkuntzak etika bat beharko dute 2040era heltzeko, parez pareko etika sano eta partekatua, balio batzuen inguruan, harreman zuzenean, batez ere norbera bere pantailetan kokatu nahi duen mundu globalizatu karratu honetan.

Herritarren zirkulu askeek dute eginen euskalgintza deitu sistema eragilea izanen dela librea, sorkuntza eta eraikuntza partekatuari bere dimentsio politikoa kontuan hartzen baldin badakigu, noski. Adibidez, libertimenduak ekartzen duen proposamena guztiz politikoa da: gazteriari begirada kritikoa zorroztearena eta plazan hitza harraraztea, euskaratik eta euskaraz saretzea, eta espazioa bere dimentsio osoan lantzea. Herriko ttattardunaz zein norberaz ere irri egitea, alderdi politiko urdinduak zein militante berdeak beren kontra-erranen aitzinean ematea. Arraildurak hitzez eta irriz betetzea, urratsak zirkuluan emanez. Kapitalaren kalapitei ondare komuna ozarki ehunez.

Herritarren zirkulu askeek dute eginen Iparralde deitu periferia dugula abandonatuko, kulturalki, alegia deusez: libertimenduko gazteek badute ekialdea osatzeko ahala, Amikuzetik Iruñerrira bederen, tokian toki sutraituz bezala. Baina horrek ez du erran nahi xobinismoan eror daikeela, kontrakoa baizik: erreferentzia komunak partekatzea, euskara zikinean elkartzea, kontrabandoaren jarreraren sanotzea, haur eta gaztetxoei gogoia ematea. Hots, imaginario komunean bizitzea, baina munduari adi egonez eta nehorren zerbitzuko belaunikatu gabe. Alderantziz: botereari hika arizanez, mediatizazioari tirrit eginez, baina harreman-sare sendoak sortuz. Halaber, libertimenduak zaletasun bat elikatzen du, baina ikuslea ez da sekula ikusle, herritar baizik.

Eta, batez ere, horrelako hitzorduak ez dira hizkuntza aldetik kuestionatzen: euskaraz dira, eta kitto. Ez ote da hori ere autoritate egitea? Uste dut bertsolaritzak baduela libertimendua bezalako sustenguen beharra, bertsolariak ezin ditugula bakarrik utzi euskal kulturaren eramaile gisa. Zirkuluak aipu dituguno, agian Xilabaren azken bertsio kolektiboak, zeinetan bertsolariak taldea lehiatzen diren, Euskal Herri osoa kutsatuko du.

Autoritatez eta kontrabandoz, kontrabandoz eta autoritatez, Iparraldetik Ekialdera, Ekialdetik Mendebaldera... alderantzizko bideak ere balio du, prefosta. Euskal Herria eraikitzeo mamirik aski badugu gure hizkuntza, herria eta zirkuluekin. Euskaratik definitzen gara aspalditik, eta bekatu hori obratzen duguno, euskaldunok badugu tokia mundu gaixo honetan!